



Aukera espazioa

# Tres Santos

Online lantegiaren emaitzak

Vitoria-Gasteizen, 2020ko ekainaren 22an

Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren (HAPO) aurrerapen-dokumentuan Tres Santos deritzon aukera espazioari buruz 2020ko ekainaren 22ko 18:00etatik 20:00etara bide telematikoz egindako **parte hartzeko lantegiaren emaitzak jasotzen ditu agiri honek.**

Eskema honi jarraituz antolatu da edukia:

## Edukien eskema

- Testuingurua: zergatik online
- Lantegiaren lan-esparrua: Gasteizko HAPO berriaren aurrerapena
- Parte-hartzaileak
- Taldeko solasaldiaren emaitzak eta akta grafikoa
- Esker onak

# 1. Testuingurua: zergatik online

Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra (HAPO) berrikusteko udal bulegoak **lantegia aurrez aurre egitea zuen aurreikusita, martxoaren bukaeran**, Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren aurrerapen-dokumentuari buruzko partaidetza-prozesuaren barruan (BERRasmatu). Sormen-lantegia egitea zen asmoa, Tres Santos ingururako etorkizunerako ideiak eta proposamenak bilatu eta zehazteko.

Maiatzean, COVID-19ak sortutako osasun-egoera kontuan izanik, Udalak partaidetza-prozesuarekin jarraitzerik ote zegoen eta nola aztertu zuen. Azkenean, erabaki zen alarma-egoera amaitu ondoren jarraitzea prozesuarekin, errealitate berrira egokituz.

Hori zehaztu zelarik, eta pertsonen kopuru jakin batekin topaketa aurrez aurre egiteko ezarri ziren betekizunak kontuan hartuz, Udalak hau erabaki zuen:

- **Parte hartzeko lantegia online egitea**, ahalegin berezia eginez aurretik zabaltzen eta jendea gonbidatzen.
- **Aurretik ekintza osagarri bat egitea: online galdetegi bat**, interesdunei irekia<sup>1</sup>. Galdetegiaren helburua zen informazio interesgarria biltzea, gero lantegian horretaz hausnartzeko. Ildo horretatik, galdetegiaren emaitzek berez duten balioa azpimarratu beharra dago: erantzun kopurua mugatua izan arren —27 pertsona orotara—zenbait ideia funtsezko eta argi ondorioztatu ziren, online lantegian parte hartu zuten pertsonen solasaldia gidatzeko eta haiei buruz hausnartzeko baliagarriak.

---

<sup>1</sup> Online galdetegiaren emaitzak berriazko txosten batean zehazten dira, zeinak agiri hau osatzen baitu.

## 2. Zehatzago: lantegiaren lan-esparrua

Gasteizko Udala **Hiri Antolamenduko Plan Orokorra berrikusten ari da**; agiri horrek zehaztuko du hiria etorkizunean nolakoa izango den, lurzoruaren erabileren eta jardueren plangintza eta antolamenduaren bidez eta alderdi hauek kontuan hartuz:

- Indarreko legeriarekin bat etortzea.
- Azpiegitura berriak.
- Helburu estrategikoak.

Hona hemen HAPOaren oraingo berrikuspena definitzen duten **5+1 helburu estrategikoak**:

- Hiri trinkoa, konplexua eta kohesionatua.
- Landa-ingurunearen eta herrien bultzada eta babesa.
- Kultura, natura eta paisaia ondareari balioa ematea.
- Hiri iraunkorra eta energiari dagokionez eraginkorra: CO<sub>2</sub>ri dagokionez hiri neutroa lortzea helburu.
- Ekonomia aktibatzea.
- Eta, zeharkako izaeraz: Gasteiz, guztiena eta guztientzat.

**HAPOaren berrikuspena eta tramitazioa epe luzerako lan-prozesua da**, maila eta fase ezberdinetan egitekoa, lan eta idazketa teknikoa herritarren partaidetzarekin uztartuz.

Gasteizen, **BERRasmatu deitu da HAPO landu eta idazteko prozesuari laguntzen dion herritarren partaidetzako prozesua**. Une honetan BERRasmatu prozesuaren bigarren fasea egiten ari da, aurrerapen-dokumentuari dagokiona.

BERRasmatuaren bigarren fasea 2020ko urtarrilean hasi zen, eta jarduera hauek antolatu ziren orduan:

- Hiriko lurzoruak: etxebizitzak eta beste erabilera batzuk. Aurrez aurreko lantegia.
- Umeentzako lantegia.

COVID-19ak eragindako osasun egoerak, ordea, eragotzi eta baldintzatu egin zuen BERRasmaturen fase hori burutzea.

**Alarma egoera bukatu zenean, partaidetza-prozesua testuinguru berrira egokitu da.**

Hala, Gasteizko Udalak zenbait informazio eta partaidetza ekintza antolatu ditu, online eta aurrez aurre, gai hauek lantzeko:

- Gasteiz nolakoa izatea nahi duzu, hiriaz haratago? Lurraldeari eta klimari buruzko hitzaldia eta online lantegia.
- Jarduera ekonomikoak: galdetegia eta online foroa.
- Lurperatzeak libre utzitako espazioa: galdetegia eta online lantegia.
- **Tres Santos espazioa: galdetegia eta online lantegia.**
- Herrietako lurzorua: etxebizitzak eta beste erabilera batzuk: galdetegia eta aurrez aurreko lantegia.
- Borinbizkarra espazioa: galdetegia eta online lantegia.
- Hirigintza eta generoa: aurrez aurreko lantegia.
- Orokorra: zabalkunderako erakusketa eta online foroa, herritarren ekarpenak aurkezteko.

**BERRASMATU<sup>2</sup>**  
**REIMAGINA**  
VITORIA-GASTEIZ



## 3. Parte-hartzaileak

Online egindako lantegian 11 pertsonak hartu dute parte: 8 gizonak eta 3 emakumek. Oso kopuru txikia da, bakarrik horietako 3 aritu baitira auzotar gisa edo inguruko entitateetako ordezkari gisa.

Zehazki, hauek hartu dute parte:

Aranako auzo elkarteko ordezkari bat
Judimendikoak auzo elkarteko ordezkari bat
Salburuko auzoko bat
Udal taldeetako 2 ordezkari
HAPOaren idazketa-taldeko 2 kide
HAPOaren berrikuspenaren bulegoko 2 kide
Prometeako 2 kide



Aipatu beharra dago izena emanda zuten 5 pertsonak azkenean ez zutela parte hartu.

## 4. Lantegiaren emaitzak

Lantegiaren emaitzak hiru multzotan bana daitezke:

- Lantegiari berari buruzko hasierako iritziak.
- Tres Santos izeneko aukera espazioari buruzko azalpenak.
- Tres Santos espazioa 2035ean irudikatzeko ariketa.

Hona hemen xehetasunak:



### • Lantegiari berari buruzko hasierako iritziak

Edukiei heldu aurretik, auzo-elkarteetako ordezkariak **partaidetza txikia** azpimarratu nahi izan dute, bakarrik 3 pertsonak hartu baitute parte auzotar gisa edo inguruko entitateetako ordezkari gisa.

Arana eta Judimendi inguruetako ordezkariak **zalantzan jarri dute online formatua** aukera egokia ote den beren auzoetako biztanleriarentzat, zaharragoa baita, eta ez baitu horretarako ohiturarik.

HAPOaren berrikuspena hain prozesu garrantzitsua izanik, partaidetza "ezin dela hor bukatu" adierazi dute, eta **aurrez aurreko topaketaren bat antolatzeko beharra** aipatu dute. Udaleko teknikariak proposatu dute bilera eska dezatela, ahal denean egiteko.

Bestetik, Plan Orokorraren berrikuspenaren bulegoko kideek zehaztu dute 5 pertsona gehiagok —auzokideak— zeudela izena emanda, baina azkenean ez dutela parte hartu. Orobat gogorarazi dute online galdetegian lortutako emaitzak ere —27 pertsonak erantzun zuten— baliagarriak izango direla lantegian parte hartzen dutenen elkarriketa eta hausnarketa aberasteko.

## • Tres Santos izeneko aukera espazioari buruzko azalpenak

Plan Orokorren berrikuspenaren bulegoko kideek aurrerapen-dokumentuaren helburu orokorrak azaldu dituzte, eta Tres Santos izeneko aukera espazioaz egiten den planteamendua. Ondoren, **parte-hartzaileek iritzi hauek azaldu dituzte:**



- Aurkeztu den aurrerapen-dokumentua oso irekia da, eta ez du xehetasun handirik ematen inguruaz.
- Zehazkiago: zer esan nahi du hiria josteak? birdentsifikatzea eta porlan gehiago jartzea esan nahi du? Gogoratu beharra dago 2003an jada auzoa birdentsifikazioaren eta aurreikusitako eraikuntza-proiektu handien kontra mobilizatu zela. Auzoak ez du hori nahi.

"Zer esan nahi du hiria josteak?" galderari erantzuteko, HAOaren idazketa-taldeak hau azaldu du: "hiria jostea harrotzea da, ingurabideak Gasteizen sortzen duen banaketa efektua (ingurabide-barrualdea eta ingurabide-kanpoaldea) desagerrarazten saiatzea. Konexioa eta barruranzko zein kanporanzko fluxuak bilatu eta erraztea da asmoa".



En la imagen aparece la zona de oportunidad denominada Tres Santos en el Documento Avance y sobre la que ponemos foco en este cuestionario

## • Tres Santos espazioa 2035ean irudikatzen ariketa

Ondoren, Tres Santos espazioa urte batzuk barru irudikatu dute parte-hartzaileek. Nola irudikatzen dute? Nolakoa izatea nahiko lukete? Eremu horretan zer gertatzea nahiko lukete?

Hausnarketa errazte aldera, online galdetegian lortutako emaitza nagusiak ere azaldu dira.

Hori guztia abiapuntutzat hartuta, **Tres Santos etorkizunean nolakoa izango den definitu beharko luketen zenbait irizpide zehaztu dituzte**. Hauek dira:



### Tres Santos espazioa honela irudikatzen dugu:

- **Kalitateko berdegunea, irisgarri eta gozagarria.** Osasunean inbertitu beharra dago, eta kalitateko berdeguneak definitu, natura hirian sartuta. Barruko korridore berde bat definitu, agian kanpoko Eratzun Berdearekin lotuta egon litekeena. Parte-hartzaileek auzo berrien garapen-eredua kritikatu dute, porlan ugari eta dimentsio handiak baitituzte.
- **Ingurubidea kale bizia bilakatzen da.** Pertsonentzat, oinezkoentzat, bizikletentzat... pentsatutako kalea, auto gutxiagorekin. Gaur egungo ingurabidearen 6 erreiki gehiegi dira, eta badakigu bat autobus elektrikorako izango dela.
- **Belaunaldien eta auzoen arteko topaketa eta aire zabaleko bizona komunitarioa sustatzen duen espazioa,** Araneko zelaian esate baterako. Tres Santos auzo zaharragoen (Arana, Judimendi eta Santa Luzia) eta gazteenen (Salburua) arteko lotunea izan daiteke.





### Tres Santos espazioa honela irudikatzen dugu:

- **Orain hutsik dauden ekipamenduak sustatzen dituen ingurua, adostutako erabilerak emanaz.** Helburuetako bat auzoak gaztetzea eta zerbitzuak hobetzea bada, hutsik dauden ekipamenduetarako alternatibak asmatu, landu eta adostu behar ditugu, esate baterako, Arana egoitza —"irizpidea duen egoitza, COVID-19arekin ikasitakoaren ondoren?"—, Ignacio Aldecoa ikastetxe publikoa —"ikasleen egoitza bat?"—.
- **Azpiegitura zaharkiturik gabeko espazioa,** esaterako, estazio elektrikoa, lehen kanpoaldean geratzen baitzen, eta orain hiri-bilbaduraren barruan. Espazio garbi eta zaindua.
- **Espazio publiko segurua,** genero-ikuspegia kontuan hartzen duena, gun e beltz eta arriskutsuak saihesteko.
- **Hori guztia espazioa hemen eta auzoetan bizi garen pertsonen partaidetzarekin eta gurekin adostuta.** Lehen urratsa da hori, diseinu bat adostea irizpide horietatik abiatuta. Ondoren ikusiko da nola landu koten uniformetasuna eta beste alderdi teknikoago batzuk.

Guztiaren osagarri, eta lantegiak eta solasaldiak ekarri dutena beste modu batean zehaztearren, emaitzak modu grafiko eta ikusizkoan adierazten dira.

# TRES SANTOS: NOLA IRUDIKATZEN DUGU? ¿CÓMO LO IMAGINAMOS?

Taller online - ekainak 22



Es herria ashio gurea!!

10 personas

- 3 vecinas
- + personal técnico
- + responsables políticos



## 1. primera reflexión

- estamos pocas personas
- ¿participación on-line? dudas!  
¿es un ensayo?
- la participación sobre TRES SANTOS no puede acabar aquí / participación presencial  
¿disolviendo reunión?

## 2. presentación documento AVANE

objetivos




AVANE: documento muy abierto no cerrado

¿qué significa coser la ciudad?  
¿efectivar? ¿más cemento?

en 2003 el barrio ya se movió contra reedificación y proyectos constructivos

## coser la ciudad es:



## 3. mirada personas participantes

+ Resultados workshop online (27 personas)

## Tres Santos en 2035

### CRITERIOS:

- Zone verde accesible y disfrutable  
corredor verde interior, conectado al anillo verde?  
Iniciativa en salud  
crítica al modelo de desarrollo nuevos barrios
- Ronda que evoluciona a calle vivida  
(para peatones, bicicletas y menos coches)  
un carril será para BUS eléctrico  
los bicarriles actuales son demarcados
- 1º diseño participativo y acordado con los BARRIOS y luego ya vendrá la uniformidad de cotas
- encuentros entre generaciones (entre barrios)  
vida comunitaria en espacios al aire libre (ej. campo araña)  
NEMA Julián y Santa Lucía (+ Salburua (+ joven))  
+ Salburua (+ joven)
- usos acordados para equipamientos varios  
fin: rejuvenecer barrios y mejorar servicios  
asína para el barrio Santa Lucía  
chica: PARVA colegio Ignacia Aldecoa (residencia estudiantil)  
redes eléctricas
- Transferir infraestructuras (antes afuera... ahora en el urbano)
- seguridad: diseño espacios públicos seguros (con perspectiva de género)

## 5. Esker onak

**Eskerrik asko parte hartuz online lantegi hau gauzatzea posible egin duten guzti-guztiei.** Esperientzia berria da, testuinguru berri bati egokitzeko modua... eta presentzia fisikoak ematen duen kontaktuaren falta nabaritu arren, denon artean solasaldi zintzo eta kalitatekoa sortu dugula esan dezakegu.

**Eskerrik asko guztioi!**